



euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa

Amezketan euskara
indarberritzeko eta
euskaldunok
ahalduntzeko
marko estrategikoa

2024-2034



**Amezketako
Udala**



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**



0. AURKIBIDEA

0.	AURKIBIDEA.....	1
1.	SARRERA.....	2
2.	AROA diseinatzeko prozesua:.....	3
2.1	Prozesua diseinatzea:	3
2.2	Diagnostikoa egitea:	3
2.3	Galdetegia bidaltzea eta datuak jasotzea:.....	3
2.4	Herritarren parte hartze saioak:	3
2.5.	AROA plana diseinatzea:.....	4
3.	DIAGNOSTIKOA.....	5
2.6.	Amezketako datu demografikoak eta ekonomikoak.....	5
2.7	Amezketako datu soziolinguistikoak	9
2.8	Ume eta gaztetxoek ikus-entzunezko kontsumoa	12
2.9	Herritarren iritzia euskarak duen egoerari buruz	13
2.10	Orain arteko plangintzaren balorazio kualitatiboa	22
4.	AROA 2024-2034	24
4.1	NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA	24



AMEZKETAKO UDALA



1. SARRERA

Amezketak euskararen arnagune bat da; hau da, herritarren % 80 baino gehiago euskaldunak dira, eta oro har, eroso eta normaltasun osoz erabiltzen da euskara egunerokoan. Gainera, UEMAko kide da. Dena dela, azken urteetan gero eta kezka handiagoa ari da sortzen euskararen erabilera pixkanaka jaisten ari dela eta.

Azken urteetan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) egon da martxan udalerrian, eta UEMAk izan du ardura plana betearazteko eta jarraipena egiteko. Aurten, hausnarketa prozesua egin da euskararen erabilera sustatzeko zein erronka dituen aztertze eta horren arabera Eusko Jaurlaritzaren AROA marko berrira egokitutako plangintza berri bat diseinatzeko. Egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta aurrera begirakoak diseinatu dira.

Udalak abiatu du prozesua UEMAren aholkularitzarekin eta hainbat herritarrekin batera. Txosten honetan prozesu horren gako garrantzitsuenak jaso dira: alde batetik, 2024-2034 aldirako euskara plana diseinatzeko egin den prozesua (metodologia, diagnostikoa, prozesuan jasotako edukia) eta, bestetik, Amezketa euskararen erabilera areagotzeko aurrera begira dituen erronkak eta landu beharreko ildoak eta ekintzak.

Prozesua bera aberasgarria izan da, herritarrekin eta herriko hainbat eragilerekin batera lan egin delako eta, batez ere, horrek berak aukera eman duelako euskara plana aurrera eramateko antolaketaren eta egituren inguruan hausnartu, zenbait herritar aktibatu eta proposamen berriak sortzeko. Esan genezake horixe dela prozesu honek eta plan berri honek ekarri duen berritasun nagusia: Gobernantzaren arloa. Azken batean, AROA elkarlanerako proposamen marko bat da, erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzak sustatzen duena, eta Amezketa ere hor jarri beharko da bereziki arreta eta indarra plangintzaldi honetan.



AMEZKETAKO UDALA



2. AROA diseinatzeko prozesua:

Honakoak dira plana diseinatzeko jarraitu diren pauso nagusiak:

2.1 Prozesua diseinatzea:

Udaletxean eginiko bilera diseinatu da plana eta bertan zehaztu da:

- Prozesuaren kronograma.
- Galdetegia zabaltzeko zein bide erabili.
- Saio irekietara zein pertsona gonbidatu.
- Komunikazioa nola egin.

2.2 Diagnostikoa egitea:

Aurrez dauden datuen bilduma egin da: soziolinguistikoak, bilakaera demografikoari lotutakoak, hezkuntzari lotutakoak, ikus-entzunezkoen kontsumoa... Horiekin Amezketako argazki orokor bat jaso nahi izan da, gero galdetegitik ateratako datuekin osatu dena.

2.3 Galdetegia bidaltzea eta datuak jasotzea:

Herritarrei galdetegi bat bidali zaie herrian euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko. Guztira 67 herritarrek erantzun dute galdetegia.

2.4 Herritarren parte hartze saioak:

Herritarrekin bi saio ireki egin dira. Hasiera batean bakarra egitea zen asmoa, baina zer landua eta hitz egina zegoenez, bi egin dira. Lehena diagnostikoa osatzeko eta bigarrena plana diseinatzeko gakoak jasotzeko. Honako hau izan da saio bakoitzaren metodologia:



AMEZKETAKO UDALA



1.saioa:

- UEMAren aurkezpena eta prozesuaren nondik norakoak, labur.
- Diagnostikoa partekatzea:
 - Iñaki Iurrebasoren tesiaren gakoak.
 - Herriko datuak.
 - Galdetegietatik ateratako ondorioak.
- Lehentasunak adosteko ariketa. Datozen 10 urteetan izango ditugun erronka nagusiak identifikatzea.
- Balorazioa eta hurrengo saiorako deia.

2.saioa:

- Herrian euskara sustatzeko martxan dagoen plangintzaren azalpen laburra.
- 2034ra bitarteko plangintzak jaso beharrekoak aztertzea. Lehen saioan identifikatutako erronkei erantzuteko zein ekimen gauzatu daitezkeen pentsatu.
- Hurrengo pausoen azalpena: saioetan irtendako ideiak txukundu eta ekarpenak kontuan izango ditugu plan estrategikoa idazteko.

OHARRA: Bi saio horiek herrian Euskararen Mahaia osatzeko beharra ekarri dute, eta eragile ezberdinekin hitz egin ostean, herrira begira lan egingo duen taldea ostatu dute. Euskararen Mahaia osatuko duten hainbat kideri ere aurkeztu zaie AROA plana, galdetegiak emandakoa eta Iñaki Iurrebasoren tesitik ateratako ideia nagusiak.

2.5. AROA plana diseinatzea:

UEMAko teknikariak txosten zirriborroa osatu du eta saioetan parte hartu duten eragile eta norbanakoei bidali die. Horrela, parte hartze prozesuan parte hartu dutenei ekarpenak egiteko aukera eman zaie.

Behin ekarpenak jasota, azken txostena osatuko da.



3. DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoan, honako informazio hau bildu da:

- Amezketako datu demografikoak.
- Amezketako datu soziolinguistikoak.
- Herritarren iritzia Amezketan euskarak duen egoerari buruz.
- 2020-2023ko ESEParen balorazio kualitatiboa.

2.6. Amezketako datu demografikoak eta ekonomikoak

2.6.1. Biztanleriaren bilakaera

Azken datuen arabera (2024/01/01), Amezketak 920 biztanle ditu. Datuen bilakaerari erreparatuta, 1960ko hamarkadan izan zituen biztanle gehien Amezketak (1.463). XX. mende amaieratik hasita beherakada izan du, eta 981 biztanle zeuzkan. Azken 24 urteotan gorakada txiki bat izan bazuen ere, beheraka joan da biztanleria; 945 biztanle zituen 2021ean.

1.taula: Amezketako biztanleria (1900-2021)

1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2011	2021
1193	1209	1163	1067	1211	1293	1463	1307	1138	981	994	970	945

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAk landua

Hala ere, Hego Euskal Herriko, udalerri euskaldunetako eta arnasmune erasanetako datuak kontuan hartuta, desazkundera izan da Amezketan. Hemen datuak:



2. taula: Biztanleriaren bilakaera proportzionala, 1900.urtea oinarri hartuta

	Amezketak	Arnasgune erasanak	Udalerri euskaldunak	Hego Euskal Herria
1910	1,3	1,9	4,0	8,2
1920	-2,5	3,7	9,3	20,3
1930	-10,6	4,1	15,8	35,8
1940	1,5	6,1	18,7	45,4
1950	8,4	10,6	25,6	58,5
1960	22,6	13,6	37,3	94,6
1970	9,6	22,7	64,1	157,2
1981	-4,6	15,4	72,2	189,9
1991	-17,8	9,1	67,4	188,9
2001	-16,7	9,5	71,2	191,7
2011	-18,7	16,4	84,3	210,2
2021	-20,8	17,7	89,6	215,6

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

Adin taldeei erreparatuta, azken hogeitun urteetan hazi egin da Amezketa haurren kopurua; herritarren % 15,1 dira 0 eta 14 urte artekoak. Gauzak horrela, Amezketa ume eta gazteen pisu proportzionala handiagoa da Hego Euskal Herriko, udalerri euskaldunetako eta arnasgune erasanetako datuekin konparatuta, eta zahartze-indizea baxuagoa du Amezketa.

3. taula: Amezketa biztanleria, adinaren arabera (2011-2021)

	0-14		15-29		30-44		45-59		60-74		75-...	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
2001	120	12,2	174	17,7	255	25,9	185	18,8	146	14,9	103	10,5
2011	148	15,3	138	14,2	217	22,4	215	22,2	130	13,4	122	12,6
2021	143	15,1	143	15,1	156	16,5	232	24,6	170	18,0	101	10,7

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

3.1. taula: Adin talde bakoitzaren pisu proportzionala biztanlerian (%)

	0-14	15-29	30-44	45-59	60-74	75-...
Amezketak	15,1	15,1	16,5	24,6	18,0	10,7
Arnasgune erasanak	12,5	19,1	24,1	19,9	15,3	9,1
Udalerri euskaldunak	14,9	14,4	18,9	23,4	17,8	10,6
Hego Euskal Herria	13,7	14,4	19,4	23,5	17,8	11,2

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

4. taula: Zahartze-indizea

Amezketak	Arnasgune erasanak	Udalerrri euskaldunak	Hego Euskal Herria
136	145	145	161

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAk landua

2.6.2. Biztanleriaren jatorria

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, Amezketako herritarren % 89,4 Gipuzkoan jaiotakoa da (2024/01/01, Eustat). Azkeneko urteetako joerari erreparatuz gero, bilakaera nabarmena da: Amezketan bertan jaiotakoen ehunekoak behera egin du, eta atzerrian jaiotakoen kopuruak gora.

5. taula: Biztanleriaren jatorria (%)

	Udalerrria			Hego Euskal Herria			Besteak		
	2001	2011	2021	2001	2011	2021	2001	2011	2021
Amezketak	60,1	56,6	53,1	38,0	37,0	37,8	1,9	6,4	9,2
Arnasgune erasanak	59,4	53,5	51,4	33,2	35,3	35,1	7,4	11,2	13,5
Udalerrri euskaldunak	50,3	47,1	45,8	37,2	37,5	37,1	12,5	15,5	17,1

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAk landua

Datuak xeheago aztertuta, barne-migrazioei dagokienez, Tolosaldeko beste herrietan jaiotako herritarren kopurua esanguratsua dela ikusi dugu, eta azken hoge urteetan Goierriko eta Donostialdeko jatorriko herritarren kopurua igo dela gehien.



6. taula: Hego Euskal Herrian jaiotako herritarren jatorria Amezketan (2001-2021)

	2001	2011	2021
Añana	1	0	0
Arabako Errioxa	0	0	0
Arabako Kantaurialdea	0	0	0
Arabako Lautada	2	2	3
Arabako Mendialdea	0	0	0
Arratia-Nerbioi	0	0	0
Bidasoa Beherea	2	2	2
Bilbo Handia	0	2	5
Debabarrena	1	1	1
Debagoiena	1	0	1
Donostialdea	84	94	97
Durangaldea	2	1	1
Enkartzioak	0	0	0
Gernika-Bermeo	0	1	1
Goierri	14	20	21
Gorbeialdea	0	0	0
Markina-Ondarroa	0	1	0
Plentzia-Mungia	0	0	0
Tolosaldea	205	205	197
Urola Kosta	13	14	14
Nafarroa	11	9	7

Iturria: Eustat, Biztanleriaren udal-eroldaren estatistika. UEMAk landua

Jatorri atzeritarreko Amezketako bizilagunei dagokienez, gehienak Ameriketatik datoz azken datuen arabera:

7. taula: Atzerrian jaiotako biztanleria, kontinentearen arabera (2021, %)

Europa	Afrika	Amerika	Asia	Ozeania
11,5	31,1	55,7	1,6	0,0

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAk landua

2.6.3. Ekonomia

Azkenik, datu ekonomikoei dagokienez, Amezketako enplegu-tasa % 53,2koa da eta langabezi-tasa % 7,5koa da (Eustat, 2023) eta herritarren errenta pertsonala, bataz beste 25.483 eurokoa (Eustat, 2022). Jarduera-sektoreei dagokienez, udalerriko balio erantsi gordinaren % 73 industriako jarduera ekonomikoa da; zerbitzuen sektorearena % 20,7 da; eta nekazaritza eta abeltzaintza % 1,9 (Eustat, 2022).




2.7 Amezketako datu soziolinguistikoak

Euskararen ezagutzaren aldagaiak neurtzen du ea Amezketako biztanleek ba ote daukaten gaitasunik euskaraz hitz egiteko edo euskara ulertzeko. Hiru hiztun tipologia neurtzen dira: euskaldunak, euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai direnak; ia euskaldunak, ulertu bai, baina hitz egiteko gaitasunik ez dutenak; eta erdaldunak, euskara ulertzeko ere gai ez direnak.


Gaur gaurkoz, azken datuen (2021) arabera, amezketarren % 88,8 da euskalduna; % 5,2 ia euskalduna; eta % 6 erdalduna.

Datuen bilakaera aintzat hartuz gero, azken 40 urteotan euskararen ezagutzak behera egin du 8,3 puntuz. Euskararik ez dakiten herritarren proportzioa, aldiz, ia 6 puntuz igo da.

1. grafikoa: Euskararen ezagutza Amezketan




2. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera



Alabaina, bestelako datu soziolinguistikoek aldaketa nabarmen bat adierazten dute: hiztun-tipologiaren aldaketa. Lehen hizkuntzari erreparaturaz gero, hiztunak umetan zein hizkuntza jaso duen, alegia; azken 30 urteetan lehen hizkuntza gisa euskara jaso duten amezketarren kopurua 14,8 puntu jaitsi dela ikus daiteke. Gaur-gaurkoz, Amezketako hiztunen % 81,8k jasotzen du euskara soilik etxean; % 4,9k euskara gaztelaniarekin batera jasotzen du; eta % 13,4ak ez du euskararik jaso etxean, % 9,9aren lehen hizkuntza gaztelania da eta % 3,5arena beste hizkuntza bat.




3. grafikoa: Lehen hizkuntzaren bilakaera Amezketan



Ondorioz, etxeko erabilera datuek ere behera egin dute azken urteotan: 30 urtean 21,7 puntu jaitsi da euskararen erabilera. 2021eko datuen arabera, amezketarren % 72,6k darabil euskara etxean, % 9,7k euskara eta gaztelania, % 13,4k gaztelania, eta % 4,3k beste hizkuntza bat.

4. grafikoa: Etxeko hizkuntzen erabileraren bilakaera






AMEZKETAKO UDALA




Azkenik, kale-erabilerari dagokionez, azken neurketan, 2021ean, kaleko elkarrizketen % 84,9 neurtu ziren euskaraz Amezketan. Hortaz, Amezketa euskararen arnagunea da, arnagune erasana (etxeko erabilera eta kaleko erabileraren arteko batez bestekoa % 60-% 80 artean dago: %78,75).



Azken bi neurketetako datuak alderatuz gero, kalean euskararen erabilerak 2,5 puntu egin du behera, eta deigarria da haurren artean 9 puntu egin duela gora, eta gazteen artean berriz bi puntu behera.

6. grafikoa: Amezketako hizkuntzen kale-erabilera neurketak, adinaren arabera





2.8 Ume eta gaztetxoek ikus-entzunezko kontsumoa

2021ean udalerri euskaldunetako ume eta gaztetxoek ikus-entzunezko kontsumoa ikertu zuen UEMak. Amezketan LHko ikasleek ez zuten bete galdetegiak, baina bai DBH eta Batxilergoko 36 ikasleek. Azken hiru egunetan zein kate edo zein plataforma erabili dituzten galdetu zitzairen. (Portzentajeak adierazten du zenbat ikasleek ikusi duten kate edo plataformaz bakoitza). Ikusten dituzten telesailen hizkuntzaz ere galdetu zitzairen. Baita zein sare sozial erabiltzen dituzte eta zein hizkuntzatan erabiltzen dituzten ere.

Hauexek izan ziren emaitza nagusiak:

- Gaztetxoek artean
 - Telebista: azken hiru egunetan, ETB1 ikasleek % 61,1ek ikusi du; FDF % 22,2 eta Telecinco eta Dmax, % 16,7ak. ETB2, % 11,1ak.
 - Plataformak: azken hiru egunetan, Netflix % 50; Moxiestar % 47, 2; Amazon % 36,1; Nahieran % 16,7; Disney+ % 11,1. Batere ez, % 16,7.
 - Telesailen hizkuntza: Gaztelania % 63,9; Euskara, % 19,4; Ingelesa %8,3; Beste hizkuntza bat % 2,8 eta ez du ikusten, % 5,6.
 - Sare sozialak: Whatsapp %97,2; Snapchat % 80,6; Instagram % 77,8; Tiktok %75; Twitch %19,4; Telegram %5,6; eta Facebook % 2,8.
 - Instagram: Euskaraz beti %33,3. Euskaraz gehien, % 11,1 eta datu bera da euskaraz eta gaztelaniaz aritzen direnena. % 44,4ak ez du edukirik igotzen.
 - Youtuben: Batez ere gaztelaniaz % 77,8; eta % 5,6 eman dute: batez ere ingelesez, berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz, berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz eta ez du youtube erabiltzen. Batez ere euskaraz, % 0,0.
 - Tiktok: Batez ere gaztelaniaz % 66,7; berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz %11,1; batez ere ingelesez %2,8 eta ez du Tiktok erabiltzen, % 19,4k.
 - Tiktokera igotzen dituzten bideoen hizkuntza: % 2,8a da batez ere euskaraz eta % 5,6a batez ere gaztelaniaz. Bietara berdintsu % 2,8ak egiten du. % 88,9ak ez du ezer igotzen.



- Musika: inkestan ikasleek non eta zein hizkuntzatan entzun ohi duten musika ere galdetu zitzaien. Lehenengo euskarriari buruz galdetu zitzaien, hau da, zer bidetatik entzuten duten:

	Youtube	Internetetik jaitsi	Spotify	Kontzertuak	Diskoak	Besterik
LH						
BH	63,9	11,1	80,6	5,6	8,3	0,0

Musika entzunaldi horietan zein hizkuntza den nagusi, honako emaitza hau eman dute galdetegiek:


	Beti euskaraz	Beti gaztelaniaz	Beti beste hizkuntzetan	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere beste hizkuntzetan	Berdin euskaraz eta besteetan
LH							
BH	2,8	8,3	11,1	2,8	25,0	19,4	30,6

2.9 Herritarren iritzia euskarak duen egoerari buruz


Galdetegia

Amezketarren iritzia jasotzeko, 2025eko martxoan galdetegi bat zabaldu da herrian, eta 67 pertsonak erantzun dute. Adinari dagokionez, 26 urtetik beherakoen % 7,5ak baino ez du erantzun galdetegia, eta % 44,8 41-65 urte artekoa izan da. Generoari begiratzuz gero, gehiengoa emakumezkoa izan da, % 76,1.

7. grafikoa: galdetegia erantzun dutenen adina



8. grafikoa: galdetegia erantzun dutenen generoa





AMEZKETAKO UDALA



Galdetegia erantzun dutenen erdiak baino gehiagok (% 55,2ak) uste du azken urteotan euskararen erabilera mantendu egin dela Amezketan. % 44,8ak erantzun du erabilerak behera egin duela, eta inork ez du erantzun erabilera igo denik.

9. grafikoa: Azken urte hauetan, zure ustez, Amezketan euskararen erabilerak...



Aurreko erantzuna zertan oinarritzen duten galdetutakoan, honako arrazoi hauek eman dituzte, nagusiki:

1. Kanpotarrak ugaritu egin dira alde batetik eta bestetik herritar batzuek gazteleraz hitz egiteko joera erakutsi dute. Kalean hainbat haurren artean ere gazteleraren erabilera sumatzen da
2. Kalean entzuten diren zenbait elkarrizketa izan ditut kontuan: umeen artekoak, laneko gaiei buruz hitz egiteko batzuk gaztelerara jotzea...
3. Ez dut aldaketarik antzeman.
4. Orokorrean, euskara da hizkuntza nagusia.
5. Umeei geroz eta gehiago entzuten zaie beraien artean gaztelaniaz.
6. Herrian bizi den etorkinekin gaztelaniaz aritzen garelako gehiago.
7. Gaztelaniaz geroz eta eduki gehiago kontsumitzen da, eta horren ondorioz euskara ez den hizkuntza gehiago erabiltzen da.
8. Tabernetan askoz ere gaztelera gehiago entzuten da, zerbitzuak euskaraz ez dakite


Jatorri atzeritarra duten pertsonen ugaritzea edota euskara ez dakitenena, eta haurren erabilera izan dira, nabarmen, gehien aipatu diren arrazoi edota kezkak



Azkenik, galdetu zaie euskara zein arlotan ikusten duten indartsuen eta ahulen Amezketan. Hauexek izan dira erantzunak:

Bost indargune handienak esparru hauetan identifikatu dituzte: lagunen arteko harremanak (galdetegia erantzun dutenen % 64,2k), nagusien artean eta familian (% 58,2k), eta eskolan eta kultura eskaintzan (% 56,7k).


10. grafikoa: Euskararen indargune nagusiak (herritarren pertzepzioa, 2025eko martxoa)



Ahulgune nagusiei dagokienez, % 52,2k sare sozialak aukeratu du. Ondoren gehien erantzundako arloak ostalaritzarena % 37,3k aukeratu du eta haurren arteko harremanak eta lan harremanak % 26,9k.



11. grafikoa: Euskararen ahulgune nagusiak (herritarren pertzepzioa, 2025eko martxoa)



Parte hartze saioetako lanketa

Parte hartze saioetan, herriko egoeraren diagnostikoa partekatu eta hutsune nagusienak zein eremutan dauden hausnartu dute herritarrek, eta datozen hamar urteetarako erronka nagusiak adosten aritu dira herritarrek eta elkarteetako eragileak.

Lehen saioan, 2034rako sei erronka nagusi adostu ditugu:

- 1) Etorri berrien harrera eta integrazioa
- 2) Haur eta nerabeen hizkuntza ohiturak
- 3) Euskararekiko sentsibilizazioa
- 4) Euskalduntzea eta alfabetatzea
- 5) Ostalaritza eta merkataritza
- 6) Euskarazko ikus-entzunezkoak eta euskal erreferenteak



Lehen parte hartze saioan garbi ikusi zuten parte hartzaileek euskararen gaiari heldu egin behar diotela Amezketan. Euskara erdigunean eta ardatz izango duen elkargune baten beharra identifikatu zuten, eta batzorde-mahaia bat eratzeko pausoak hasi dituzte. Udalaz gain herriko eragile ezberdinetako ordezkariak elkartuko dira. Elkarrekin ordezkariak izendatu eta urtean bi aldiz behintzat biltzeko konpromisoa hartuko dute. Eta besteak beste, AROA planaren gidaritza gauzatuko lukete.

Bigarren parte hartze saioan, berriz, sei erronka horiei erantzuteko ekarpenak jaso dira. Hauexek izan dira:

1. erronka: Etorri berrien harrera eta integrazioa

ZER EGIN DEZAKEGU?

NORK / NOLA

- Harrera protokoloa egina du Tolosaldea Garatzenek, eta hori baliatuz protokoloa herriratzea izango litzateke helburua. Eta era berean Zumadi eskolak ere harrera garatzea, familia berriei harrera egoki bat egiteko.
- Diptiko egokitu bat
- Saretzea. Bertakoak eta familia etorri berriak saretzea litzateke gakoa, eta azpimarra jarri da, jada urte batzuk daramatzaten jatorri atzerritarreko seme-alabengan. Bertakotu diren gazte horiekin saretze lana egitea.

Behin taldea osatzean udal ordezkariak eta herriko eragileak arduratuko dira, UEMAren laguntzarekin.



2. erronka: Haur eta nerabeen hizkuntza-ohituretan eragitea (gurasoen rola eta pantailen eragina aintzat hartu beharrekoak dira)

ZER EGIN DEZAKEGU?

NORK/NOLA

- Sistematikoki eskolako irakasleek jasotzen duten formazio soziolinguistikoa beste eragile batzuetara zabaltu:
 - Jangelako langileak
 - Haurrekin harremana duten herriko beste eragile eta elkarteak

Udalak.

UEMAk, kronograma bat egingo genuke urteka.

- Gurasoentzako saioak antolatu.
- Antolatzen den kultur eta kirol eskaintza guztia euskaraz izatea.

UEMAk. Helduak euskarara erakartzeko gakoa izan daiteke seme-alabengan fokua jartzea, beraiek euskalduntzearen garrantziaz jabe daitezen.

3. erronka: Euskararekiko sentsibilizazioa

ZER EGIN DEZAKEGU?

NORK / NOLA

- Euskaldunen sentsibilizazio falta sumatu da, eta helburua herrian alor ezberdinetan sentsibilizazioa lantzea izango litzateke. Balorazioak egin eta sentsazioak ikusi
- Euskaldunak ahaldundu euskara eskaintzeko, elkarriketa elebidunak sustatu eta normalizatzeke.

Kontuan izan herritar berriak ez daudela leku denetan (musika eskolan ez daude, elkarteetan ez daude...) Oro har, elkarteetan kide berriak batzea zaila izaten da.



4. erronka: Euskalduntzea eta alfabetatzea

ZER EGIN DEZAKEGU?

- Euskararik ez dakien herritar berriari Amezketan bizitzeko euskara behar duela ikusarazi behar zaio. Euskara behar duela sentitu behar du, eta euskaldunontzat ere ahalegin handia dela gaztelaniaz hitz egin behar izatea.
- Motibazioa landu
- Euskara ikasteko taldea sortzea
- Mintzalaguna

NORK / NOLA

Euskararen Mahaia, udala eta UEMAk urteko kronograma bat osatzea.

5. erronka: Ostalaritza eta merkataritza

ZER EGIN DEZAKEGU?

- Ostalaritzan lanean ari direnei euskararen beharra dutela sentiaraztea izango da helburuetako bat, eta baita beraien euskararekiko jarreran eragitea ere.
- Herriko nagusiekin lanketa, euskarari eutsi diezaioten.
- Kanpainak egin
- Hiztegia

NORK / NOLA

Euskararen Mahaia arduratuko da, baina hein batean harrerarekin lotuta egongo da. UEMAtik etor daitezke kanpainak, hiztegia,... urtero kronograma osatuko litzateke.



6. erronka: Ikus-entzunezkoak eta euskarazko erreferenteak

ZER EGIN DEZAKEGU?

- Amezketako herritarrei euskaraz sortzen dena eskura jartzea izango da egitekoetako bat; dagoen edukiari etekina ateratzeko. Edukiak zabaltzea izango da egitekoa, eta posible denean herriratzea.

NORK / NOLA

Herriko Euskararen Mahaia arduratuko da, eta horretarako UEMAk ere euskara jarriko dizkio edukiak edo berrikuntzak.

Hurrengo urteetara begira eta herrian esparru ezberdinetan egin daitezkeen ekimenen zerrenda bat gehitu da:

- Udalak antolatzen dituen kultur eskaintza orotan euskara izango da komunikazio hizkuntza.
- Udala, urteko aurrekontua zehazterakoan, arnagunea bere onera etortzeko antolatzen diren jardueren ordainketaz arduratuko da, ahal duen neurrian, noski.
- Bere arduraean egongo da euskarazko klaseak antolatzea eta herritarrak horretara bideratzea.
- Ostalaritzara eta merkataritzara euskararen erabilera babes dezaten gomendioak eskaintzea: zerbitzari euskaldunak, erabiltzen dituzten agiri oro euskaraz jarrita eskaintzea (ordainagiriak...)
- Amezketako enpresei euren lana euskaraz gauza dadin laguntzea inprimakiak euskaraz jarri: aurrekontuak, fakturak...
- Hitzaldia, norbait esanguratsua ekarrita.
- Ikastolen sorreraz filma, eta saiatu horren inguruan tertuliatxo bat sustatzen.
- Udaletxean erroldatzerakoan Protokolo hori jasoko dute eta Euskararen Mahaia osatzen duen ordezkariak adieraziko die agiriaren mamia. Mesedegarri litzateke eta eragingarri etorri berri den horren herrialdeko euskaradun norbaiten babesa izatea.
- Ikasle berria eskolaratzean ere, une horretarako Zumadik prestatutako euskararen munduan murgiltzeko mezu eta orientabide nagusien bilduma garbi adierazten dituen agiria jasotzea.



- Zumadiko ikasketa plangintzaren barruan egongo da etorri berri denaren herritasunaz eta bere herria uzteko arrazoien jakitun egitea ikasle guztiak eta jakinen gainean jartzea nola eragin etorri berrien euskalduntzean, hau da, euren esku ere badagoela ikaskide berrien euskalduntzeaz ohartaraztea.
- Euskararen mahaikideren batek edota UEMAko teknikari baten ardura izango da, horretarako espresuki antolatuko bilera edo elkarretaratzean (giro erlaxatuan, pintxo eta tragoxka batzuk lagun direla), euskararen normalizazioan eurek duten garrantziaz ohartaraztea. Ez dira soilik kirol teknikari edo sustatzaileak. Ez, askoz ere gehiago dira, Batetik, eredu dira ikasle horientzat eta euren jardunean euskara bada harreman hizkuntza, imitazioz ikasleek ere euskarara joko dute. Eta bestetik, eragile horiei dagokie euskararen sustatzaile ere izatea, hau da, euskararen erabilera hitzez eta keinuz goraiatzea (hitzez zorionduz, keinu baten bidez, bizkarrean kolpetxo bat emanez...), hau da, euskara prestigiatzea. UEMA, ahal bada, lankide izango dugu honetan ere.
- Jarduera hori osotasunean garatzeko, kiroleko begiraleek bereziki, alor horretan erabili ohi den hiztegi teknikoa eta ohiko diren esamoldeak ezagutzea komeni da, ikasleekin erabiltzeko eta ikasleen erabilera sustatzeko. Hemen ere, ahal bada, UEMA lankide izango dugu hiztegi hori eta esamoldeen materiala eskuratzeko bidean. (Eibarko futbol taldea)
- Ekimena martxan jarri eta denboraldi batera, komeni da berriro taldea biltzea eta egindako bidean hizkuntza helburuen betekizun maila baloratzea, eta behar bada neurri zuzentzaileak jartzea. Gauza bera edo antzekoa ikasturte amaieran.
- Lehen pausoa da zuzendaritzak irakasleen euskara gaitasunaren eta motibazioaren maila baloratzea, hori maila egokian jaso ez bada, zaildu egingo baita eskolari dagokion hizkuntza helburuen lorpena.
- Zumadiko zuzendaritzak irakasleen euskararen zuzentasuna eta kalitatea bermatzeko beharrak neurtu eta baliabideak jarriko ditu (Euskaltzaindiko arauak ezagutu eta eguneroko jardunean erabiltzea, Amezketa ikasleek erarik ohikoenean egiten dituzten hutsen azterketa egin eta zuzenketarako bideak zehaztea...).
- Euskara zuzena eta egokia erabiltzea ez da euskara irakaslearen ardura soila, irakasle guztien ardura da euskara egokiaren erabiltzaile eta sustatzaile izatea. Eta horretarako, hau da,



irakasleak animatzeko edo motibatzeko, behar diren bitartekoak erabiltzearen beharra zuzendaritzak baloratu behar du.

- Zuzendaritzaren egitekoa izan daiteke ordezkapenak egitera datorren irakasleari Zumadi eskolako hezkuntza/hizkuntzaren filosofiaren berri ematea eta lerro horretatik bere bidea egiteko nahia eta laguntza eskaintzea.
- Zumadi eskolak EUSKARAREN etxea izan behar du. Paisaia linguistikoak euskarara bultzatu behar du, euskararen erabilera sustatu behar du. Horretarako, marrazki egokiak eta lema esanguratsuak egitera bultzatuko dira ikasleak eta gero hormetan eskegitzea.
- Kanpotik datorren ikaslearen integrazioa, berez gogorra dena, azkarragoa eta errazagoa izan dadin, bere inguruko ikasle-lagunei gomendatuko zaie horretan lankide izan daitezen: euskaraz mantso-mantso egiten, bazterrean ez uzten, zerbait euskaraz esaten duenean zoriontzen...
- Ahal bada, jolas orduan, kirol lehiaketak antolatzea. Aurrez, kirol horretan oinarritzko diren hitz tekniko eta esamoldeak landuko dira, eta kirol lehiaketa horretan erabiltzera bultzatu.

2.10 Orain arteko plangintzaren balorazio kualitatiboa

Familia transmisioa

Euskara transmititzearen garrantziaz kontzientziatzeko hainbat ekimen egin dira, hala nola UEMAren Hedatu hezkuntza-proiektuaren barruan, urtero egiten da LH 2ko ikasleekin eta beraien familiarekin hizkuntza ohiturei buruzko Ispiluari Begira tailerra. Horrez gain, gurasoen kontzientziazioan eragiteko beharra sumatu da.

Irakaskuntza

UEMAren bidez, Zumadi eskolako irakasleek hainbat formazio jaso dituzte azken urteetan. Alde batetik formazio soziolinguistikoa jaso dute, eta bestetik, gelan euskarari eusteko estrategien saioa ere egin dute. Gainera, ikasleekin ere Ispiluari Begira eta Bagoaz tailerrak egiten dira. Horrez gain, ikasleekin lantzeko materiala -unitate didaktikoak- ere eskaini zaio eskolari, ikasleekin kontzientziazio soziolinguistikoa lantzeko. Gainera, galdetegian haurren euskara



AMEZKETAKO UDALA



erabilera izan da kezka iturri edo ahulguneetako bat, eta proposamena izan daiteke jolasgaraiko neurketak egitea sistematizatzea joera eta bilakaera ikusteko.

Era berean, udako hezitzaileekin ere formazioa egin ohi da, udalekuetan ere euskara zeharlerrotasunez lantzeko.

Euskalduntzea

Amezketako Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak eskaintzen ditu, eta herrian bertan euskara ikasteko aukera ere eskaintzen du, beti ere, taldea osatuz gero. Bestalde, harrerak duen garrantziaz jakitun dira amezketarrak, eta gaiari heldu diote aurrerapausoak emateko.

Merkataritza eta ostalaritza

Amezketako merkataritza eta ostalaritza erdaldundu egin dira azken urteotan, eta euskaraz ez dakien gero eta langile gehiago dago batik bat ostalaritzan. UEMAk bi kanpaina egiten ditu urtero sektorean euskararen erabilera sustatzeko, eta itzulpen zerbitzua ere eskaintzen die establezimenduei, eta zerbitzu horren berri emateko bisitak ere egin izan dira.

Aisia eta kirola

Aisiari dagokionez, Amezketako elkarte gehienek euskaraz funtzionatzen dutela esan daiteke, beraz, alor honetan egoera ona da. Hala ere, aurrera begira kontuan izan beharko dira aisiari, eskolari edota kirolari lotuta dauden ekitaldi, saio eta ekimenak euskaraz egiten direla. Eragile edota hezitzaileek formazioak jasotzea komenigarria izango da.

Administrazioa

Udal barruko euskararen erabilera areagotzeko plana du Amezketako Udalak, eta urtean hirutan egiten zaio jarraipena. Udal barruko egoera ona da, eta Bikain ziurtagirira lortu zuen 2021ean. Hala ere, zerbitzu eta kontratazioetako hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipena egitea hobetu behar da.



AMEZKETAKO UDALA



4. AROA 2024-2034

4.1 NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA

4.1.1. Misioa

Amezketako euskal hiztun kontzienteak eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.

4.1.2. Nahi estrategikoa

Amezketako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datozen urteetarako, euskal hiztunak aktibatze eta ahalduztze nahiz euskararen komunitatea sendotze eta Amezketa euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

4.1.3. Ikuspegia

- Amezketan euskararen transmisioa bermatuko da.
- Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira.
- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu.
- Euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu Amezketako gizarte esparru guztietan.
- Euskara bihurtuko da Amezketako komunitateko kide izateko bidea.
- Amezketara datozen biztanle berriek bisitariak nabaritu dute Amezketan euskaraz bizi dela.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK, ERRONKAK, LAN ILDOAK, EKIMENAK ETA EKINTZAK

	MAILA	UDAL ETA GARAPEN AGENTZIEN ESKUMENeko ZERREDA SAILKAPENA	Arduraduna(k)	Adierazleak
1. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: GOBERNANTZA	1. ARDATZ ESTRATEGIKOAK	GOBERNANTZA		
	ERRONKA	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.		
	Lan-ildoak	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.		
	Ekimena	G.1.2.1. EAEko eta Nafarroako administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.		
	Ekintza	Udalarekin elkarlanean aritu AROA planaren jarraipena egiteko	Udala-UEMA	bileren aktak
	Ekintza	UEMAren plan estrategikoa eta Udaleko plan estrategikoa bateratu elkarren osagarri izan daitezen.	Udala-UEMA	plan estrategikoa
	Ekimena	G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.		
	Ekintza	Herriko euskalgintzako eragileekin koordinatu eta elkarlanerako ildoak zehaztu.	Udala-UEMA-euskalgintza	adostutako plangintza
	Lan-ildoak	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.		
	Ekimena	G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu.		
	Ekintza	Arduradun politiko eta teknikoekin euskararen inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu.	Udala-UEMA	sentsibilizazio saioa
	Ekimena	G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.		
	Ekintza	Udalaren Erabilera Plana bete	Udala-UEMA	erabilera plana
	Ekintza	Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu.	Udala-UEMA	egindako ELEak
	ERRONKA	G.2. Berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.		
	Lan-ildoak	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.		
	Ekimena	G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatu, komunikazio-esparruak zabalduz.		
	Ekintza	Ikastetxeekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsu-neeak erantzuteko eta estrategiak elkarrekin lantzeko.	Udala-UEMA	bilerak/mezuak/deiak

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: JARRERAK / MOTIBAZIOAK	2. ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARRERA / MOTIBAZIOA		
	ERRONKA	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduztzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeetan eragin.		
	Lan-ildoak	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.		
	Ekimena	JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.		
	Ekintza	Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak sustatu: Egin Nirekin euskaraz...	Udala-UEMA	kanpaina
	Ekintza	Gizartea aktibatzeke ekimenak lagundu (Euskaraldia, Korrika)	Udala-UEMA	lagundutako ekimenak
	Lan-ildoak	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.		
	Ekimena	JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.		
	Ekintza	UEMAren HEDATU proiektuaren bidez, ikastetxean formazioak eman irakasle, guraso eta haurrentzat, besteak beste arnaguneen eta hizkuntza jarrerren inguruko sentibilizazioa lantzeko.	UEMA	formazio saioak eta parte hartzea.
	Ekintza	UEMAren Salto! Udaleku ibiltaria antolatzen jarraitu.	UEMA	parte hartze datuak
	Ekintza	Arnaguneen eta udalerri euskaldunen errealtatearen eta garrantziaren gaineko kontzientziazioa landu	UEMA	formazioak, parte hartzea eta asebetzea
	Ekintza	Herritar euskaldunak ahalduntzeko eta kontzientziazitzeko egitasmoak abiatu: Arnasa Gara...	UEMA	egitasmoak
	ERRONKA	JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.		
	Ekimena	JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.		
	Ekintza	Bisitariei euskararen berri emateko eta euskara partekatzerak animatzeko lanketak egin.	Udala-UEMA	Euskarrietara bisita kopuruak
	Ekintza	Bisitarien guneetan euskarari buruzko informazioa, herriko euskara, historia... eskaini. Euskara herriko ondare inmateriala dela nabarmendu.	Udala-UEMA	Euskarriak
	Lan-ildoak	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.		
	Ekimena	JM.2.4.1. Euskaratik urrun dauden pertzepzioetan sakondu.		
	Ekintza	Erdaldunei euskararen inguruko saioak eskaini, hizkuntza aniztasunari, euskararen egoerari eta arnaguneen garrantziari buruzko informazioa jaso dezaten eta euskararekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten, aurrera begira baliabideak eta tresnak eskaintzeko.	UEMA	Formazioak
	Ekimena	JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.		

3.	Ekintza	Etorri berriei hizkuntza harrera egiteko ibilbidea eta baliabideak eskaini	Udala-UEMA	Baliabideak/parte hartze datuak
	Ekintza	Eskolei harrera programak antolatze laguntza eskaini	Udala-UEMA	Baliabideak
	Ekimena	JM.2.4.5. Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.		
	ARDATZ ESTRATEGIKOA	EZAGUTZA / GAITASUNA		
	ERRONKA	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.		
	Lan-ildoak	EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.		
	Ekimena	EG.1.3.2. Hezitzaile eta irakasleei euskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoan inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini.		
	Ekintza	Irakasleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan eta erabilera estrategietan	UEMA	formazio saioak eta parte hartzea.
	Ekintza	Aisialdi, kirol eta kultura arloan estrategikoak diren elkarteei formazio soziolinguistikoa eman (begiraleak, entrenatzaileak...).		
	ERRONKA	EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.		
	Lan-ildoak	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.		
	Ekimena	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta behararen arabera eskaintzak sortu.		
	Ekintza	Herrian taldea sortzeko laguntza eta baliabideak eskaini.	UEMA-Udala	Euskalduntze datuak
	Ekintza	Udalei dirulaguntzen inguruko ordenantza arautzen lagundu.	UEMA-Udala	Ordenantza
	Ekintza	Erdalduntzen ari diren lan eremuetan euskara ikastaroak emateko aukerak aztertu (ostalaritza, zaintza-lanak, arrantza...):euskarra zero, euskara plus	UEMA-Udala	Ikastaroak
	ERRONKA	EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.		
	Lan-ildoak	EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrek euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.		
	Ekimena	EG.3.1.2. Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten aukerak erraztu.		
	Ekintza	Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan (udalekuak, kirola...) parte hartu dezaten sustatzeko praktika onak bildu	UEMA	Parte hartze datuak
4.	ARDATZ ESTRATEGIKOA	ERABILERA / ELKARRERAGINA		

4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERABILERA / ELKARRERAGINA	ERRONKA	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.		
	Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu		
	Ekimena	EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.		
	Ekintza	Haurrei euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko ekimenak martxan jarri	Udala-UEMA	Baliabideak
	Ekintza	Ikasleen gurasoen hizkuntza profilak jaso, guraso eta familia tipologiaren berri izateko eta bilakaera aztertzeko.	UEMA	Datuen bilakaera
	Ekintza	Abizenak euskalduntzeko kanpaina	UEMA	Abizena euskaraz jarri dutenen kopurua
	Ekimena	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.		
	Ekintza	Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko kanpaina egiten jarraitu: sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaini	UEMA-Udala	Merkataritza-ostalaritzako hizkuntza paisaia datuak / langileen hizkuntza gaitasuna
	Ekintza	Banketxeekin hitzarmenak egin eta horietan euskararen erabilera bermatu	UEMA	Datuen bilakaera
	Ekintza	Aldian-aldian, anbulatorioko langileen hizkuntza ezagutzaren azterketa egin.	UEMA	Datuen bilakaera
	Ekimena	EE.1.1.5. Aisialdi antolatuen eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.		
	Ekintza	Euskarazko zinema emanaldiak lehenesteko lanketak egin	Udala-UEMA	Euskarazko zinema emanaldien datuak
	Ekintza	Herriko elkarteekin lanketak egin, herriko errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko, hizkuntza irizpideak zehazteko eta hizkuntza kudeaketaren inguruko komunikazio formatuak adosteko	Udala-UEMA	Herriko elkarten hizkuntza erabilera datuak
	Ekimena	EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.		
	Ekintza	Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina egin	Udala-UEMA	Errenta aitorpena euskaraz egin duten %aren bilakaera
5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BERRIKUNTZA				

5. ARDATZ ESTRATEGI- KOA.	ERRONKA	B.1.Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu		
	6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA			
6. ARDATZ ESTRATEGI- KOA.	ERRONKA	IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.		
	Ekintza	UEMAren ikerketak herriratu	UEMA	ikerketak
7. ARDATZ ESTRATEGI- KOA.	7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA			
	ERRONKA	KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu		
	Ekintza	UEMAk egiten duen lanaren berri eman eta hartzaile motaren arabera egokitu.	UEMA	Komunikazio kanalak